

Enpresa eta Kontsumobide



JUSTIFIKAZIOA

Kontsumitzeko ekintza kontsumitzailearen, erabiltzailearen eta enpresaren artean gertatzen da, eta enpresak bere betebeharrak ezagutu behar ditu, baita eskura dituen tresnak ere, kontsumo-harreman egokia izateko.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua tresna bat da bi aldeentzat, kontsumitzaileentzat eta enpresarentzat, eta oinarrizko informazioa eta funtsezko tresnak eskaintzen ditu, araudiari egokitzen zaion kontsumo-egintza baterako.

HELBURUAK

- Enpresa-jarduerak kontsumitzaileen eskubideei eta betebeharrari dagokienez dituen betekizunak ezagutaraztea.
- Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua enpresentzako tresna gisa aurkeztea.
- Kontsumo-gatazka bat konpontzeko bideak ezagutzea.
- Merkatuan irregulartasunak detektatzeko mekanismoak ezagutaraztea eta jakinarazten jakitea.
- Merkataritza-harremanetan konfiantza eta fidagarritasuna ematen duten jardunbide egokien jarraibideak ezagutzea.

EDUKIAK

- Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua: helburu eta funtzio orokorrak.
- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren prestazioak enpresei.
- Enpresek kontsumitzaileen aurrean dituzten betebeharrak orokorrak.
- Kontsumo-gatazkek konpontzeko bideak.
- Merkatuaren kontrola eta kontsumoaren ikuskapena.
- Produktuen segurtasuna eta alertak.
- Urrutiko salmentak.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (Aurretiko ariketa)

- Hasierako galdetegia eta dinamika orokorraren azalpena

GARAPEN-FASEA (Saioa)

- Kontsumobide.
- Kontsumobide eta enpresa.
- Enpresen betebeharrak.
- Merkatuaren kontrola eta ikuskapena.
- Produktuen segurtasuna eta arrisku-jakinarazpena.
- Gatazkek konpontzeko bideak.
- Urrutiko salmentak.
- Laburpena.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (Ondorengo ariketa)

- Oinarrizko alderdien ulermenaren egiaztapena.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Komunikazio-, hizkuntza- eta literatura-gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.

ZEHARKAKOAK

- Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasunak.
- Elkarrekin bizitzeko gaitasuna.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako gaitasuna.
- Izaten jakiteko gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Banakako lana.
- Urrutiko metodologiak.

ANTOLAKUNTZA

*IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Telegram aplikaziorako sarbidea.	-	10 saio 100 minutu

**Esperientzia erabat online eta erabiltzaileen gailuen bidez garatzen denez, ez da beharrezkoa espazioak edo taldeak planifikatzea.*

EBALUAKETA

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.